# BANDOA

**SALBUESPENAK MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONENTZAKO IBILGAILUETAN**

2019ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren ordainketatik salbuesteko eskaera epea zabaltzen da.

**ESKAERA EPEA:** 2019ko otsailaren 15a arte, hau ere barne.

**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

1) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo minusbaliatuaren izenean edo horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasun frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena ere.
- Ibilgailua minusbaliotasuna duen pertsona ez beste erabiltzekoa dela egiaztatzeko, egoki den zinpeko aitorpena.
- Udalarekin dituen zerga eta tasa obligazioetan eguneratua egotea.

2) 100eko 65eko edo handiagoa duen pertsona bat guraso-ahal, tutoretza edo kuratoretza dela-eta ardurapean duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuetan:

- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasun frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena ere.
- Minusbaliotasuna duen pertsonarekin duten harremana egiaztatzen duen agiria.
- Udalarekin dituen zerga eta tasa obligazioetan eguneratua egotea.

**HURRENGO ESKAERAK:**
Aurreko urteetan ordainketatik salbuesteko eskaera egin eta onartua izan zitzaienek ez dute berriro ere eskaera egin beharko eta automatikoki aplikatuko zaie.

**MATRIKULA BERRIAK:** matrikula berria daukaten ibilgailuentzat BI HILABETEKO epea dago Trafiko Buruzagitzan alta ematen zaienetik hasita, indarrean den ekitaldirako salbuespena eskatzeko.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
Anoetako Udaletxeko Bulego Orokorra
Herriko Enparantza Z/G
Anoeta

Anoeta, 2019ko urtarrilak 2
Alkatea